

MUSIKA JAIALDIETARAKO TARIFAK

Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI Elkarte (EKKI) entitate bat da, jabetza intelektualaren eskubideen kudeaketa kolektiboa egiten duena. Honako hauen babesean eratu zen: apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretu Legegilea, Jabetza Intelektualaren Legearen testu bategina onesten duena, eta ekainaren 28ko 141/2011 Dekretua, Transferentzien Bitariko Batzordeak 2011ko ekainaren 22an hartutako akordioa onartzen duena. Akordio hori zera da, Euskal Autonomia Erkidegoari jabetza intelektualari buruzko legeria betearaztearen arloan irailaren 28ko 3069/1980 Errege Dekretuaren bidez eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuak gehitzeari buruzkoa.

Euskal Kulturgileen Kidegoak baimena jaso zuen, Kultur Ondarearen Zuzendariaren 2014ko urriaren 20ko Ebazpenenaren bidez, era eskusiboan edo gehiengoz jarduteko Euskal Autonomia Erkidegoan, Jabetza Intelektualaren Legean aitorturiko eskubideak kudeatzeko entitate gisa.

Haren estatutuen arabera, helburua du egileen eta beste eskubidedun batzuen ondare eskubideak kudeatzea. Besteak beste, honako hauek kudeatzen ditu:

- a) Komunikazio publikoko eskubideak musika-lanak publikoki errepresentatzeagatik, besteak beste.

Eskubide horren kudeaketaren testuinguruan, azken urteetan indarra hartuz joan da musika-jaialdiaren formatua, zeinak zenbait musika ekitaldi eskaintzen baititu areto espezifikoetan, itxietan nahiz aire zabalekoetan, egun batekoak edo gehiagokoak, sartzeko diru ekarpen bakarra egin behar delarik. Jaialdiak sustatzen dituztenen sektoreko erakunde askotarikoek behin eta berriz eskatu diote EKKIri tarifa espezialitate bat sartzeari kontuan hartuko dituen ekitaldien berezitasunak; izan ere, errepresentazio publikoko tarifa aplikatzea baztertzaila zen haiekiko, beste formatu edo arlo batzuetan egindako errepresentazio publikoekin konparatuta; gainera, ez zituen modu sinesgarrian bermatzen Espainiako legedian ECD/2574/2015 Agindu iraungiak sartutako irizpideak, ezta eskubide horren ustiapenetik eratorritako kopuruen banaketa justu eta garden bat ere.

Tarifa hauek EKKI musika-lanen errepresentazio publikorako Tarifa Orokorretan lehendik ezarriak dituenak osatzen dituzte, eta aplikatzekoak dira musika-jaialdien ustiapen motan. Horretaz gain, erabiltzaile mota honen testuinguru espezifikoa ezagutzen dute, baita EKKIren jardun eremuan egindako jaialdien ekosistema ere. Era berean, bat datoz ECD/2547/2015 Ministerio Aginduan ezartzen diren printzipioekin eta, ondoren, 2/2018 Errege Dekretuaren bidez PELen txertatutakoekin, bai eta horiek ezartzen dituzten

baldintza eta irizpideekin ere jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzen dituzten erakundeen tarifak zehazteaz denaz bezainbat.

AURKIBIDEA

I. GLOSARIOA

II. TARIFA

- a. ZERGA OINARRIA
- b. TASA APLIKAGARRIA
- c. NEGOZIAZIO ZUZENA
- d. HOBARIAK

XEDAPEN GEHIGARRIAK

I. GLOSARIOA

Edukiera: jaialdiaren aretoan sartzen den jende kopuru maximoa izango da edukiera, zenbaki karakterekin adierazita.

Bertaratuak: jaialdira bertaratu direnek kopuru maximoarekiko bete duten zatia izango da, sarrerako kontrola eta emandako gonbidapenak kontuan hartuta eta zenbaki karakterekin adierazita.

Musika-jaialdia: tarifa honen arabera, musika-jaialditzat hartuko dira honako eskakizun hauek betetzen dituzten ekitaldiak:

- Jaialdiak izango dira musika-jaialdi gisa komertzializatzen diren ekitaldi bereziak;
- musika emanaldi askotarikoak dituztenak, generoa edo mota edozein dela ere. Tarifa honen arabera, jaialditzat hartuko da bost emanaldi edo hortik gora dituztenak;
- egun bakarrean edo segidako zenbait egunetan izandakoak; kontuan hartuko dira segidakoak ez direnak baldin eta sarrera edo abonamendu bat eros badaiteke egun guztietarako. Tarifa honen arabera, ez dira kontuan hartuko:
 - Maiztasunez antolatutako kontzertu zikloak, toki jakin batean edo batzuetan.
 - Sasoiko abonamenduak, operetarako, orkestretarako eta antzekoetarako.
- eta azpiegitura guztia edo zati bat behin-behinekoa dutenak, guztia edo zati bat ekitaldirako jartzen dena eta amaitzean desmuntatzen dena.

Sarrera gordinak: antolatzaileak errepertorioaren ustiapenarekin jasotako diru sarrera guztia, hor sartzen dira kontsumitzaileek edozein abonamendu edo sarrera modalitategatik ordaindudako prezioaren guztizkoa. Doako sarrera duten musika-jaialdien kasuan, oholtzaratuko diren artisten kontratazio gastuak izango dira erreferentzia.

Antolatzailea: antolatzailea musika-jaialdiaren promotorea izango da; pertsona fisikoa nahiz juridikoa izan daiteke, titulartasun publikokoa edo pribatukoa, edo instituzio publiko bat, zeinaren ekimenez eta haren ardurapean egin baita musika-jaialdia.

Prorrata temporis: *prorrata temporis* printzipioaren bitartez, errepertorioaren edozein erabilerak kontuan hartuko du denboraren forma lineala, zertarako eta ondoren kuotatan banatzeko eta errepertoriotik sortutako irabazkinak errazago zehazteko.

Errepertorioa: jabetza intelektualaren legeak babestutako obren multzoa, zeinen eskubide ekonomikoak osoki edo partez EKKIk kudeatzen baititu, dela

zuzeneko kudeaketa kontratuaren bidez eta dela beste kudeaketa-erakunde batzuekin egindako kontratuen bidez.

II. TARIFA

a. ZERGA OINARRIA

Honela kalkulatu da tarifaren zerga oinarria:

Diru sarrera egozgarriak

Lehenik, jaialdiaren diru sarrera gordinak aterako dira, eta bi multzotan banatuko dira, egozgarriak eta ez-egozgarriak.

Hauek izango dira diru sarrera edo gastu egozgarriak:

- Sarreraren salmentetatik eskuratutako diru sarrera garbiak, ken zergak eta banku-operadoreen eta salmenta-operadoreen kudeaketa gastuak, erakunde antolatzaileak egindako kontabilitate deklarazioaren arabera.
- Doako musika jaialdi bat baldin bada, artisten kontratazio gastuak, zergak kenduta.

Hauek ez dira hartuko diru sarrera egozgarritzat:

- Antolatzaileak aretoa eta agertokia muntatzeko egindako gastuak:
- Babesleetatik eta publizitatetik jasotako diru sarrerak.
- Musika-jaialdiaren aretoan jan-edanak saltzetik lortutakoak, ez eta merchandising eta beste gailu batzuen salmentatik lortutakoak ere.
- Kanpaldiak ekarritako kostuak, baldin sarreraren prezioan hori sartuta badago. Tarifa honetarako, ezin izango da deskontatu, kanpaldiaren prezioan, egun guztietan musika-jaialdira sartzeko sarrerarik merkeenaren prezio osotik %5 baino gehiago.
- Kultura sustatzeko dirulaguntzetatik jasotako diru-sarrerak, edo artistak kontratatzeke jasotako beste laguntza batzuk, zuzenean esleituta egon zein ez.

Diru sarrera egozgarriak kalkulatu, zuzentzailea aplikatuko zaio erreperitorioaren erabileraren garrantziaren arabera.

Erabileraren garrantzia

Erabileraren garrantziaren araberrako zuzentzaileak EKKIk kudeatutako eta babestutako erreperitorioaren ustiapenaren neurgailu kualitatibo gisa jardungo du.

Kalkulu hori egiteko, kontuan hartuko da edukierari dagokion bertaratzea musika-jaialdiaren jardunaldi bakoitzeko, eta zuzentzailea aplikatuko da honako tarte hauen arabera:

Edukiera	Zuzentzailea
<%25	0,5
%25-50	0,75
%50-75	0,85
>%75	1

Lizentzia eskatzen duen musika-jaialdiak ez badu ikusle kopurua kontrolatzeko tresnarik, edo sarrerako kontrolik ez duen emanaldi bat bada, erabileraren garrantzia kasuz kasu aztertuko da honako irizpide hauei jarraituz:

- Aretoaren, plazaren edo beste agertokiren baten gutxi gorabeherako edukiera
- Agintari eskudunek bertaratzeaz egindako kalkuluak
- Antolatzaileak berak egindako kalkuluak, betiere irizpide zorrotzetan eta frogagarrietan oinarritzen badira

b. TASA APLIKAGARRIA

%4,7koa izango da zerga oinarriaren tasa, baldin eta antolatzaileak musika-jaialdia hasi baino gutxienez 45 egun lehenago eskatzen badu erreperorioaren ustiapenerako lizentzia.

Aurreko baldintza ez bada betetzen, **%5**eko tasa aplikatuko da.

Kasu bakoitzeko tasari erabileraren zuzentzailea aplikatuko zaio, erabilera intentsitatearen modifikatzailearen arabera:

Erabileraren zuzentzailea

Aplikatu beharreko tasari erreperorioaren erabileraren zuzentzaile bat aplikatuko zaio, zeinak zehaztuko baitu *pro rata temporis* printzipioaren arabera erreperorio jardunaldi bakoitzeko erabilera hain zuzen EKKIk kudeatua, dela kudeaketa zuzenaren bidez eta dela beste kudeaketa erakunde batzuekin egindako ordezkartza- eta/edo elkarrekotasun-akordioen bidez.

Zuzentzaile hori ekitaldien denboraren guztizkoaren ehuneko eran adieraziko da, egun bakoitzeko ekitaldiek irauten duten denboraren guztizkoa aintzat hartuta, zeina, era berean, amaierako tasa zehazteko aplikatu beharreko tasarekin biderkatuko baita.

Erabilera intentsitatea

Erabileraren intentsitatearen araberako zuzentzaileak EKKIk kudeatutako eta babestutako errepertorioaren ustiapenaren neurgailu kuantitatibo gisa jardungo du.

Hala, ekitaldiak aldi berean gertatuz gero (15 minututik gora aldi berean dituztenak), ekitaldi bereziak balira bezala hartuko dira.

Jaialdiko egun bakoitzaren iraupen osoa kalkulatzeko orduan, aldi berean izan diren ekitaldiak ekitaldi oso gisa kontatuko dira, elkarren segidakoak balira bezala eta ez aldi berekoak.

Erabilera intentsitatearen zuzentzailea ez da aplikatuko agertoki bakarreko musika-jaialdien kasuan.

Hona hemen EKKIri musika-jaialdietan dagozkion irabazkinak kalkulatzeko formularen adierazpen matematikoa:

$$[(IG - DSE) \times GARRANTZIA] \times (Tasa \times EZ^{INTENTSITATEA})$$

c. ORDAINKETA ZUZENA

Musika-jaialdiak ziurta badezake modu sinesgarrian eta idatziz hitzartuta artista bati eskubideak zuzenean ordaindu dizkiola —zeinak normalean EKKIren bitartez egin beharko bailuke bere eskubideen betearazpen publikoa—, musika-jaialdian publikoki emandako errepertorio osoa artistaren beraren egiletzakoa bada eta ez badu kargarik edo lagapenik, kasu horretan, ekitaldia deskontatu egingo da *pro rata temporis*-etik eta sortzapekotzat eta likidatutzat joko da.

Antolatzaileak EKKIri froga sinesgarri bat eman beharko dio zuzenean ordaindu izanarena, lizentzia eskatzen denetik musika-jaialdiaren lehen egunaren hasierara doan denbora tartean. Era berean, EKKIri behar bezain ondo frogatu beharko dio musika-jaialdian artistak publikoki gauzatutako errepertorioa egiaz bere eskuetan daukala eta ez dela errepertorio bat zergak, lagapenak eta argitalpen kontratuak dituena edo artistarekin zerikusirik ez duten konpositoreekin batera egindako koautoriak.

d. HOBARIAK ETA DESKONTUAK

Antolatzaileak hobariak eta deskontuak jaso ditzake, aplikatu beharreko tasari kenduko zaizkionak. Gehienez ere %4raino kendu ahalko zaizkio, honako ekintza hauengatik:

- %5eko hobaria, jaialdia amaitu eta hurrengo 30 egun naturalen barnean diru sarrera gordinak emateagatik.

- %3ko hobaria, jaialdia amaitu eta hurrengo 30 egun naturalen barnean edukiera- eta bertaratze-datuak emateagatik.
- %7ko hobaria, musika jaialdian interpretatutako obren gaineko informazioa emateagatik, artista bakoitzaren emanaldiak ordena tenporalean eta iraupena adieraziz, eta zehaztuz gutxienez artistaren izena eta abestiarena, jaialdia amaitu eta hurrengo 30 egun naturalen barnean.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo xedapen gehigarria

Indarrean sartzea, iraupena eta atzeraeragina

Musika-jaialdietarako tarifa indarrean sartuko da 2023ko urtarrilaren 1ean; eta indarrean egongo da, non eta EKKIk ez dituen ateratzen hori ordezkatu duten beste tarifa batzuk. Alabaina, edozein musika-jaialdik lizentzia eskatu ahalko du dagozkion hobariekin, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ekitaldietarako, baldin errepertorioaren ustiapena izan badute eta ez bazaie dagozkien sortzapenak ordaindu.

Bigarren xedapen gehigarria

Lizentzia ereduak eta autolikidazioa

Antolatzaileak hala eskatzen badu, EKKIk lizentzia-eskarien ereduak eta autobetelan-ereduak emango dizkio, musika-jaialdietarako tarifaren autolikidazioa egiteko.

Autolikidazio-ereduek ez dute antolatzailea salbuesten diru sarrera gordinei dagozkien guztizko kopuruak partekatsetik, eta guztizkotik kendutako diru sarrerak berariaz adierazi eta behar bezala arrazoitu beharko ditu.